



TXOSTEN METEOROLOGIKOA –2021KO AZAROA

Azaroa oso hezea izan zen, ipar-mendebaldean erabat hezea. Tenperaturari dagokionez, hotza izan zen eta oso hotza kostaldean. Hilabetea oso lasaia izaten ari zen, baina azken egunetan iparraldeko egoera nagusitu zen eta negu giroa izatera pasa ginen. Euri iraunkorraren eta elurteen eraginez lau alerta laranja igorri behar izan ziren. Enkarterrietako eta Bilbao Handiko estazio batzuetan mende honetako azarorik euritsuena izan zen. Halaber, egun batean pilatutako prezipitazioaren errekorrak gainditu ziren, batez ere Arabako eta Bizkaiko estazioetan.

Prezipitazioa

Pilatutako prezipitazioaren arabera azaroa oso hezea izan zen eta erabat hezea EAEn ipar-mendebaldean. Hain zuzen ere, Enkarterrietan, Bilbo Handian, Arratia-Nerbioi, Arabako Kantaurin eta Gorbeia inguruan ohiko prezipitazioaren bikoitza pilatu zen, baita Urola Kostan ere. Lehengo bi eskualdetako hainbat estaziotan azaroan pilatutako prezipitazioaren errekorra gainditu zen, mende honetako behintzat (Deusto, Ordunte, Galindo, Sodupe-Kadagua, Arboleda, Abusu). Urola Kostako Aizarnazabal estazioan ere errekorra gainditu zen. Azaroa EAEn urteko hilabeterik euritsuena denez, estazio askok urte osoko errekorra ere gainditu zuten.

Kantauri isurialdearen muturretan egin zuen euri gehien, bai ekialdean (Eskas 519.8 mm, Añarbe 455.2 mm, Ameraun 426.1 mm) bai mendebaldean (Ordunte 472.8 mm, Cerroja 417.7 mm, Sodupe-Cadagua 412.6 mm). Kantauri isurialdearen barnealdean pilatutakoa ere aipagarria izan zen (Ibai Eder 392.2 mm, Bidania 388.1 mm, Galdakao 387.7 mm, Aizarnazabal 376.9 mm), baita isurialdeen arteko banalerroan pilatutakoa ere (Igorre 361.1 mm, Urkiola 356.3 mm, Sarria 355.7 mm). Ebro ondoko eskualdean egin zuen euri gutxien, estazio bakar batean pilatu ziren 100 mm baino gehiago (Moreda 70 mm, Zambrana 96.2 mm, Páganos 112.8 mm). EAE osoa kontuan hartuz, XXI. mendeko hirugarren azarorik euritsuena izan zen, 2019ko eta 2013ko azaroen atzetik.

Logikoki, euri-egunen kopurua batezbesteko klimatologikoa baino altuagoa izan zen: euri-egunak kostaldean 15 eta 20 artekoak izan ziren eta Arabako Lautadan 15. Euri-egunak hilabetearen hasieran eta azken herenean izan ziren. Euri-egun horietatik zazpitan prezipitazioa oso ugaria (≥ 30 mm) izan zen eta horietatik bostetan 60 mm baino gehiago pilatu ziren.

Hilaren 3tik 5era egunero egin zuen euria, eta pilatutakoa oso ugaria izan zen, batez ere kostaldean eta Enkarterrietan, iparraldeko adbekzio indartsua zela eta. Pilatutako euri-kantitatetarik aipagarrienak: hilaren 3an, Matxitxako 54.6 mm, Almike 51.8 mm, Behobia 45.7 mm, Mungia 43.8 mm; hilaren 4an, Punta Galea 60.2 mm, Sangroniz 56.9 mm, Deusto 52.1 mm, Ordunte 51.6 mm, Balmaseda 50.9.



Hilaren 25ean, GIDE baten eraginpean, Kantauri isurialdean prezipitazioa oso ugaria izan zen. Apartekoa izan zen Gipuzkoako kostaldean eta Tolosaldean pilatutakoa, 100 mm baino gehiago (Eskas 150.2 mm, Añarbe 140.6 mm, Ereñozu 115.4 mm, Miramon 112.9 mm, Ameraun 107.5 mm, Lasarte 105.2 mm, Oiartzun 104.8 mm). Miramon eta Ereñozu estazioen kasuan, XXI mendeko egun baterako errekor berria litzateke egun horretan pilatutakoa. Bizkaian ere 60 mm baino gehiago pilatu ziren (Mungia 63.6 mm, Arteaga 63 mm, Iurreta 62.5 mm, Sodupe-Cadagua 62.4 mm). Elur-kota 900 metrora egon zen. Pilatutako euriaren ondorioz ibaietan arazoekin hasi ziren. Goizean Jaizubia estazioa maila laranja igo zen. Oiartzun eta Urumea arroetan beste estazio batzuk ere maila horira iritsi ziren.

Hilaren 26an euriak atsedean eman zuen, baina gero, 27tik 29ra artean, euriagatik muturreko egoerarik larriena jazo zen. Azore uharteetako antizikloia eta *Arwen* deituriko depresioaren artean ezarritako iparraldeko adbekzio indartsuaren ondorioz, Kantauri itsasoan fronte geldikor bat sortu zen. Iparraldeko fluxu erabat hezearen laguntzaz, Kantauri isurialdeko hainbat estaziotan eta Mediterraneo isurialdeko eta isurialdeen arteko banalerrotik gertu dauden beste batzuetan 150 mm baino gehiago pilatu ziren (Ordunte 219 mm, Balmaseda 215 mm, Sarria 195.1 mm, Cerroja 192.9 mm, Sodupe-Cadagua 185.2 mm, Gorbea 183.4 mm, Igorre 181.2 mm, Ameraun 176.5, Abusu 175.1 mm, Otxandio 174.3 mm). Horrez gain, goi-geruzan eta 850 hPa-eko mailan aire hotza sartu zen eta hilaren 27an eta 28an elur-kota 500 metrora egon zen, zenbait lekutan beherago. Hilaren 29an elur-kotak gora egin zuen eta 1500 metro inguruan kokatu zen. Horregatik, egun horretan egindako euri oso ugariari elur urtua gehitu zitzaion. Hilaren 29an, goizaldetik aurrera arazo ugari jazo ziren arroetan eta ibai batzuk gainezka egin zuten. Maila larria gaintu zen Bizkaian Kadagua, Ibaizabal eta Nerbioi arroetan, Gipuzkoan Oria eta Deba arroetan eta Araban Baias arroan.

Amaitzeko, bai hilaren 28an bai 29an, Bizkaiko eta Arabako zenbait estaziotan azaroen egun bakar batean pilatutako prezipitazio-errekorra gaintu zen. Kapildui, Orduña eta Ordunteren kasuetan, urte osoko errekorra gaintu zen.

Taula 1: Azken urteetan azaroen pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012
Deusto	381.8	40.2	303.7	63.6	185.2	179.9	139.7	138.5	274.2	93.5
Lasarte	327.7	62.6	399.2	118.7	261.2	285.8	163.5	191.7	376.2	228.9
Arrasate	313.2	40.8	370.2	84.6	170.0	192.7	188.1	165.8	450.8	167.9
Abetxuko	152.4	36.3	223.7	69.9	71.0	112.6	54.7	126.1	186.6	95.9
Párganos	112.8	26.8	134.9	67.1	26.8	70.2	48.6	112.4	104.9	98.3



Temperatura

Azaroko batez besteko tenperatura hotza izan zen, kostaldean oso hotza. Kostaldeko batez besteko tenperatura 10-11 °C artekoa izan zen, Arabako Lautadan, berriz, 7 °C ingurukoa, 1980-2010 periodo normalaren batezbestekoa baino 1.2 °C baxuagoa, alegia. Mende honetako bigarren arazorik hotzena izan zen, 2007ko azaroaren ostean eta 2004ko azaroaren antzekoa.

Egun hotzak egun beroei gailendu zitzaizkien; egun beroak hilabetearen hasieran, erdialdean eta hilaren 19-20 aldera izan ziren.

Hilaren 2an neurtu zen tenperaturarik altuena, baina arratsaldean fronte bat igaro zen eta haizea hego-mendebaldetik ipar-mendebaldera aldatu zen (Oleta 21.1 °C, Galindo 21 °C, Sodupe-Cadagua 20.7 °C, Arteaga 20.5 °C, Derio 20.5 °C).

Hilaren 19a ere egun beroa izan zen (Mungia 19.3 °C, Amorebieta 19.3 °C, Ibai Eder 19 °C, Sodupe-Cadagua 18.4 °C), zerua oskarbi egon baitzen. Horregatik, egun horretan inbertsio termikoa izan zen eta Mediterraneo isurialdean izotz txiki handia egin zuen (Ozaeta -4 °C, Kanpezu -3.5 °C, Antoñana -3.1 °C, Salvatierra -2.5 °C), baita Kantauri isurialdeko lekuren batean ere (Muxika -0.2 °C). Beraz, oszilazio termiko handiko eguna izan zen. Hurrengo egunean zerua ez zen hain garbi egon, baina hala ere egun beroa izan zen, batez ere kostaldean (Oleta 19.7 °C, Higer 19 °C, Arteaga 18.6 °C, Mutriku 18.6 °C).

Egun hotzei dagokienez, hilaren 27a eta 28a aipatu behar ditugu. Izotza egin zuen adbekzioagatik, eta ez gaueko irradiazioagatik, aurrekoetan bezala. Mendi inguruetan egin zuen izotzik handiena, beraz, baita kantauri isurialdeko mendi inguruetan ere (Herrera -2.5 °C, Ozaeta -1.5 °C, Iturrieta -1.3 °C, Oiz -0.8 °C, Cerroja -1.3 °C, Orduña -0.9 °C, Salvatierra -0.5 °C, Urkiola -0.3 °C).

Intsolazioa ohikoa dena baino % 33 baxuagoa izan zen gutxi gorabehera, Arabako Errioxan izan ezik, han ohikoa izan zen. Hiriburuetakoko eguzki-orduen kopuruari dagokionez, Bilbon 59 ordu inguru izan ziren, Donostian 65 eta Gasteizen 62.

Taula 2: Azaroan, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012
Deusto	10.9	14.5	12.1	13.1	11.5	12.5	15.1	15.2	12.2	13.7
Lasarte	9.6	13.5	10.6	12.3	10.4	10.6	13.5	14.1	10.3	12.0
Arrasate	8.4	11.7	8.6	10.4	8.3	8.9	11.4	11.7	8.4	9.6
Abetxuko	6.5	8.7	7.7	8.8	6.6	7.5	9.1	10.2	7.6	7.8
Párganos	7.3	9.3	7.6	8.4	8.1	8.3	9.7	9.9	8.0	8.2



Haizea

Laugarren koadrante ko haizea izan zen nagusi ia hilabete osoan, intentsitate ezberdinekin. Hilaren 1etik 4ra haizea indartsu ibili zen, bolada oso gogorrekin, batez ere kostaldean eta mendi inguruetan. Haizeguneak ez diren tokietan ere haize-bolada oso gogor batzuk neurtu ziren, batez ere Araba hegoaldean; hilaren 2an 80 km/h inguruko haize-bolada neurtu zen. Hilabetearen erdialdeko egunetan ere laugarren koadrante ko haizea ibili zen, baina ez zen hasieran bezain indartsua izan. Hilabetearen amaieran haizea indartu egin zen berriro eta hilabete osoko egunik haizetsuenak hilaren 26a eta 27a izan ziren.

Noizbehinka haizeak iparraldetik jo zuen, ipar-ekialdekoa nagusitu zen zenbait unetan. Hego-haizea, ordea, oso gutxitan ibili zen; hilaren 19an eta 20an bigarren edo hirugarren koadrante ko haizea ibili zen, bolada gogorrekin mendi inguruetan.

Hilaren 26an eta 27an hilabete osoan neurtutako haize-boladarik indartsuenak izan ziren, mendebal/ipar-mendebaldeko haizearekin, batez ere hilaren 27an; orduan Atlantikoan antizikloi bat zegoen eta Mantxako kanalean depresio bat. Hilaren 26an Matxitxakon haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gainditu zuten (100.9 km/h, 18:50ean UTC), gainerako estazioetan neurtutako haize-boladak ez ziren aipagarriak izan. Hilaren 27an, ordea, kostaldeko hainbat estazioetan haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gainditu zuten (Punta Galea 115.7 km/h, Zarautz 112.9 km/h, Matxitxako 106.9 km/h, Santa Clara 102 km/h) eta goizaldean hilabete osoko haize-boladarik gogorrena neurtu zen Cerrojako estazioan (118.2 km/h, 04:50ean UTC). Haizeak itsaso zakarra eragin zuen eta egunaren bigarren partean Donostiako buian olatuen altuera adierazgarria 6.5 metrotik gorakoa izan zen.

Hilaren 2an hilabete osoan haizeagatik igorritako abisu bakarra izan zen. Goizean mendebal/hego-mendebaldeko haizea ibili zen. Arratsaldearen hasieran haizea ipar-mendebaldera aldatu zen eta tenperaturak behera egin zuen, haizea indartu ez zen arren. Geroago, haizea mendebal/ipar-mendebaldetik finkatu eta indartu egin zen, bolada oso gogorrekin kostaldeko estazioetan. Haize-bolada horien artean aipagarriena, Matxitxakon neurtutakoa (97.7 km/h 15:50ean UTC).



Analisia

Azaroaren 1etik 5era

Azaroaren hasieran giro hotza eta nahasia izan zen, udazkenean ohi bezala, baina neguko itxurarekin. Udazkeneko lehenengo sarrera hotz garrantzitsua gertatu zen. Hilaren 1ean, goizaldean, fronte hotz batek lurraldea zeharkatu zuen, baina gero giro eguzkitsua gailendu zen eta mendebal/hegomendebaldeko haizea ibili zen. Hilaren 2tik aurrera, Kantauri itsasoan zegoen aska baten ondorioz zirkulazioa nabarmen izurto zen. Hurrengo egunetan nagusi izan zen giro euritsu eta hotzari hasiera eman zion arratsaldean fronte hotz batek, iparraldeko fluxuarekin. 500 hPa-eko mailan depresio handi bat zabaldu zen Europa mendebaldean eta Atlantikoan gailur bat indartu zen. Azaleko konfigurazioa goi-geruzako konfigurazioaren berdin-berdina izan zen, Atlantikoan antizikloi indartsu bat, iparraldetik hegoaldera luzatuta, eta Italiako iparraldean depresio bat. Bi egitura horien artean ipar-haizearen korridore indartsu bat sortu zen eta itsasaldeko aire-masa polarrak eragin zuen gurean. Eguraldia euritsua izan zen, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan, eta udazkeneko lehen elurtea bota zuen 1000-1200 metrotik gora.

Azaroaren 6tik 21era

Antizikloiaren pean izan ginen egun hauetan, baina ñabardura batzuekin. Hilaren 6tik aurrera 500 hPa-eko mailan Mediterraneoan GIDE bat sortu zen eta iparraldeko fluxua eten egin zen Azoreetan zegoen antizikloiaren eragin gero eta handiagoagatik. Antizikloia kontinentean zabaldu zen gero. Hilaren 6an eki-osagaiko haizea ibili zen, ostarteak zabaldu ziren eta ateri eutsi zion. Hilaren 7an fronte bero txiki bat pasa zen eta hodeiak ugaritu egin ziren; zirimiri apur bat ere egin zuen ipar isurialdean. Hilaren 8tik aurrera eguraldi antiziklonikoa izan zen nagusi. Ez zuen euririk egin eta eguraldia egonkorra izan zen. Hilaren 12ra arte zerua hodei gutxirekin egon zen. Hilaren 13tik aurrera presio altuen pean jarraitu arren, Frantziatik ipar-ekialdeko haizeak bultzatutako fronte okluditu batek eragin zuen eta euria egin zuen, batez ere Kantauri isurialdean. Hilaren 18ra arte giroa goibela izan zen. Hilaren 19an eta 20an eguzkitsua egon zen eta tenperatura maximoek gora egin zuten, ez ordea minimoek; zeru oskarbi egon zenez tenperatura minimoak jaitsi egin ziren eta Araban izotza egin zuen.

Azaroaren 22tik 25era

Hilaren 22an GIDE bat Europa iparraldetik Iberiar penintsulara mugitu zen, 850 hPa-eko mailan tenperatura baxuarekin. GIDE horren eraginpean, euria egin zuen gurean, batez ere hilaren 25ean. Egun horretan Gipuzkoan 100 mm baino gehiago pilatu ziren, Bizkaian 60 mm baino gehiago. Hilaren 23an Arabako hegoaldean pilatutakoa ere aipagarria izan zen. Goi-geruzako eta 850 hPa-eko mailan zegoen aire hotzagatik, elur-kota 1000-1200 m inguruan kokatu zen.



Azaroaren 26tik 30era

Hilabetearen amaieran iparraldeko fluxu indartsua ezarri zen, Atlantikoan zabaldutako presio altuen eta Europako presio baxuen artean. Britainiar uharteen inguruan eta Ipar itsasoan depresio bat kokatu zen, beste bat Frantziako hegoekialdean. Bi depresio horiek uztartu egin ziren, *Metofficek Arwen* izendatutako depresio handiago batean. Goi-geruzan eta 850 hPa-eko mailan aire hotza agertu zen. Fronte batzuk igaro ziren EAetik eta prezipitazioa oso ugaria izan zen, eta hilaren 27an eta 28an elur-kota 400-500 metrora egon zen. Fronte geldikorraren eraginpean, prezipitazioa oso ugaria izan zen eta zenbait estaziotan 24 orduan 100 mm baino gehiago pilatu ziren. Itsasaldeko haizea indartsu ibili zen egun horietan eta olatuen altuera igo eta 4-5 metro ingurukoa izan zen.






Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2021eko azaroko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Tenp. °C	Tenp. max. °C	Tenp. max.abs. °C	Tenp. min °C	Tenp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max l/m ²	Euri- egunak
Deusto	10.9	13.7	20.0	8.7	4.5	0	381.8	59.2	15
Lasarte	9.6	12.6	18.8	7.2	3.4	0	327.7	105.2	20
Arrasate	8.4	11.5	17.8	5.9	1.9	0	313.2	58.8	20
Abetxuko	6.5	9.6	15.7	3.7	-1.8	3	152.4	56.7	15
Páganos	7.3	10.9	16.6	4.3	0.0	1	112.8	39.9	8



Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak



Pilatutako prezipitazioa

 Tenperatura minimoa


 Batez besteko tenperatura

 Tenperatura maximoa




Prezpitazioaren jokaera


Behatutako prezpitazioa
Precipitación observada




Prezpitazio normala
Precipitación normal



Prezpitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normal



Prezpitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normal





Muturreko balioak

Azaroan pilatutako prezipitazio maximoa

Izena	XXI mendeko azaroko aurreko errekorra (mm)	Urtea	Aurtengo azaroko errekorra (mm)	Estazioa jarritako urtea
Abusu	381	2019	382.3	1992
Aizarnazabal	366.9	2013	376.9	1996
Arboleda	334.7	2019	357.1	2004
Balmaseda	368.2	2019	376.5	1993
Cerroja	390.8	2013	417.7	2001
Deusto	323.2	2019	381.8	2001
Galindo	333.5	2019	367	2013
Ordizia	279.3	2013	283	1992
Ordunte	303.2	2019	473.8	1998
Sangroniz	350.2	2013	366.7	2012
Sodupe-Cadagua	385.1	2019	412.6	2001

Urte osoan hilabete batean pilatutako prezipitazio maximoa

Izena	Aurreko XXI mendeko errekorra (mm)	Urtea	Hilabetea	Aurtengo XXI mendeko errekorra (mm)	Estazioa jarritako urtea
Abusu	381	2019	11	382.3	1992
Arboleda	334.7	2019	11	357.1	2004
Deusto	323.2	2019	11	381.8	2001
Galindo	333.5	2019	11	367	2013
Ordunte	430.7	2015	2	473.8	1998
Sangroniz	350.2	2013	11	366.7	2012
Sodupe-Cadagua	385.1	2019	11	412.6	2001

Azaroan egun bakar batean pilatutako prezipitazio maximoa

Izena	XXI mendeko aurreko errekorra (mm)	Data	XXI mendeko aurtengo errekorra (mm)	Data	Estazioa jarritako urtea
Miramón	91.5	2011/11/6	112.9	2021/11/25	2010
Oiartzun	94	2011/11/6	104.8	2021/11/25	1998



Ereñozu	111.6	2011/11/6	115.4	2021/11/25	1992
Ilarduia	57.3	2019/11/8	62.5	2021/11/28	2015
Kanpezu	47.4	2019/11/10	47.9	2021/11/28	2015
Mallabia	18.5	2020/11/7	51.2	2021/11/28	2009
Alegría	44.8	2019/11/10	49.1	2021/11/28	2006
Sodupe- Cadagua	63.5	2016/11/23	77.4	2021/11/28	2001
Abetxuko	46.2	2005/11/15	56.7	2021/11/28	2001
Salvatierra	53.3	2011/11/5	55.6	2021/11/28	1999
Zaldiaran	42.4	2005/11/15	47.8	2021/11/28	1994
Balmaseda	73.4	2011/11/5	80.2	2021/11/28	1993
Navarrete	47.6	2011/11/5	55.8	2021/11/28	1992
Arkauti	43.7	2005/11/15	50.1	2021/11/28	1992
Venta Alta	61.2	2015/11/21	69.4	2021/11/29	2014
Galindo	54.2	2017/11/8	55.3	2021/11/29	2013
Ordunte	74.2	2004/11/1	78.4	2021/11/29	1998
Orduña	57.9	2004/11/1	75.6	2021/11/29	1997
Kapildui	60.2	2016/11/23	68.4	2021/11/29	1991

Urte osoan egun bakar batean pilatutako prezipitazio maximoa

Izena	XXI mendeko aurreko errekorra (mm)	Data	XXI mendeko aurtengo errekorra (mm)	Data	Estazioa jarritako urtea
Miramón	96.7	2013/5/18	112.9	2021/11/25	2010
Ereñozu	111.6	2011/11/6	115.4	2021/11/25	1992
Kapildui	60.2	2016/11/23	68.4	2021/11/29	1991
Orduña	70.7	2017/1/10	75.6	2021/11/29	1997
Ordunte	74.2	2004/11/1	78.4	2021/11/29	1998



Muturreko egoerak

Azaroan 12 abisu hori igorri ziren, ondoren azaltzen diren kausen arabera banatuta: 4 prezipitazio iraunkorreatatik, 1 prezipitazio handiagatik, 4 elurragatik, 2 olatuen altueragatik nabigaziorako eta 1 enbatagatik.

Horrez gain, 4 alerta laranja igorri zen: 2 prezipitazio iraunkorreatatik eta 2 elurragatik, abisuekin gertatzen den bezala, hilabetearen amaieran igorri ziren denak.

- Hilaren 2an, goizean goiz hego-mendebaldeko haizea ibili zen, bolada oso gogorrekin haizeguneetan. Kostaldean tenperatura maximoak 18-20 °C ingurukoak izan ziren. Arratsaldean fronte bat igaro zen eta haizea ipar-mendebaldera aldatu zen (Punta Galean, 13:30ak UTC aldera). Haizea aldatu ondoren, mendebal/ipar-mendebaldetik finkatu eta indartu egin zen nabarmen; 15:20an UTC Punta Galean 81.5 km/h-ko haize-bolada neurtu zen. Gero, haize-bolada indartsuak kostalde osoan neurtu ziren eta 16:30ean UTC Higer estazioan 87.8 km/h-ko haize-bolada neurtu zen. Kostaldean tenperatura 6-7 °C jaitsi zen, baina jaitsiera haizea aldatu zenean gertatu zen eta ez gero, bolada oso gogorrekin batera.

Estazioa	Haize-bolada, hilak 2 (km/h)	Ordua UTC
Punta Galea	82.9	15:30
Matxitxako	97.7	15:50
Zarautz	80.4	16:30
Santa Clara	94.9	16:30
Jaizkibel	90	16:30
Higer	90	16:40

Asteartea, hilak 2: Abisu Horia itsasaldeko arriskua: enbatagatik 15etatik 18etara ordu lokala.

- Hilaren 25ean ia Kantauri isurialde osoan euri oso ugaria eta iraunkorra egin zuen, batez ere egunaren lehenengo partean eta Gipuzkoako ipar-ekialdean. Han 100 mm baino gehiago pilatu ziren egun osoan; Eskas estazioan 150 mm baino gehiago pilatu ziren, hilabete osoan egun bakar batean pilatutako maximoa. Miramon (20.5 mm/h) eta Ereñozu (17.5 mm/h) estazioetan euri handia egin zuen, etengabe egin zuelako. Elur-kota 900 metro inguruan kokatu zen. Goizetik aurrera, pilatutako euriaren ondorioz, Gipuzkoako arroetan arazo ugari izan zen, batez ere Bidasoa ibaiaren arroan; Jaizubia estazioan ibaia maila laranja igo zen (2.190 m 13:30ean UTC). Bizkaian



ere euria oso ugaria izan zen eta egun osoan pilatutako maximoak 60-70 mm ingurukoak izan ziren. Arratsaldea aurrera joan ahala atertzera egin zuen eta gauean noizbehinka euri txikia egin zuen. Horregatik, ibaien mailak orokorrean jaitsi egin ziren, urtegietatik hustutako ura jasotzen dutenak izan ezik, adibidez Ereñozu.

Estazioa	Pilatutako prezipitazioa, hilak 25 (mm)
Eskas	150.2
Añarbe	140.6
Ereñozu	115.4
Miramón	112.9
Ameraun	107.5
Lasarte	105.2
Oiartzun	104.8
Berriatua	67.1
Mungia	63.6

Osteguna, hilak 25: Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Bizkaian eta Gipuzkoan 00etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 27tik 29ra prezipitazio iraunkorra eta ugaria egin zuen, Kantauri isurialdeko hainbat lekutan oso ugaria, baita isurialdeen arteko banalerrotik gertu dauden Mediterraneo isurialdeko zenbaitetan ere. Hilaren 27an pilatutako prezipitazio maximoa 60-70 mm ingurukoa izan zen, batez ere Kantauriko bailaretan. Prezipitazioa ez zen handia izan eta hainbeste litro pilatu ziren prezipitazioa etengabe egin zuelako, baina trumoi-ekaitzak izan ziren, txingorarekin batera, batez ere Kantauri isurialdean. Goizaldean eta goizean goiz elur-kota jaitsi egin zen eta arratsalde-gau partean 500-600 metrora egon zen. Euria erruz egin arren, ibaiak ez ziren igo maila horira. Mendebal/ipar-mendebaldeko haizea indartsu ibili zen, batez ere kostaldean, eta olatu handiak altxatu zituen (Donostiako buian 6.6 metro 19etan UTC). Hilaren 28an ere prezipitazioa etengabe egin zuen eta hainbat tokitan 70 mm baino gehiago pilatu ziren. Eskualderik kaltetuenak Aiaraldea, Gorbeialdea eta Enkarterriak izan ziren egun horretan, baina azken orduetan Bilbo Handian prezipitazioa handia izan zen (Galindo, 20 mm/h; Deusto, 15.1 mm/h). Egunaren lehenengo partean Kantauri isurialdean trumoi-ekaitza izan zen, txingorarekin batera. Goizaldean eta goizean goiz kota ertainetan eta altuetan elurra egin zuen, baina eguna aurrera joan ahala elur-kota igo egin zen eta egunaren amaieran 1100-1200 metrora kokatu zen. Arratsaldean Kadagua ibaia maila horira igo zen Aranguren eta Sodupes-Herrerías estazioetan. Geroago, Oriako eta Urumeako arroetan ere ibaia maila horira igo zen. Gauean ibaiak gainezka egin zuten ia Kantauri isurialde osoan eta isurialdeen arteko banalerrotik gertu dauden Mediterraneo isurialdeko zenbait lekutan. Bizkaian, Kadagua, Ibaizabal eta Nerbioi arroetan ibaiak maila



laranjara igo zen, Gipuzkoan Oria eta Deba arroetan. Hilaren 29an, egunaren hasieran euria ugari eta ia etengabe egiten jarraitu zuen eta pilotutako prezipitazioari mendi inguruetan urtutako elurra ere gehitu zitzaion, elur-kota igo eta 1500 metro inguruan kokatu baitzen. Arroetan arazo ugari izan ziren arratsaldera arte; arratsaldea aurrera joan ahala ibaiak maila berdera jaitsi ziren, urtegietatik ura jasotzen duten estazioetan izan ezik.

Estazioa	Pilatutako prezipitazioa, hilak 27 (mm)
Añarbe	73.7
Ameraun	71.1
Balmaseda	70.8
Zizurkil	69.8
Belauntza	65.1
Igorre	64.7
Ordunte	64.4
Andoain	60.3

Estazioa	Pilatutako prezipitazioa, hilak 28 (mm)
Sarria	90.8
Balmaseda	80.2
Sodupe-Cadagua	77.4
Ordunte	76.2
Ameraun	76.1
Ibai Eder	75
Orozko	74.7
Gorbea	74
Gardea	72.1
Areta	70.1

Estazioa	Pilatutako prezipitazioa, hilak 29 (mm)
Ordunte	78.4
Abusu	68.9
Venta Alta	68.5
Balmaseda	62.5

Larunbata, hilak 27: Aleria Laranja elurragatik barnealdean 03etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Kantauri isurialdean 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 24etara ordu lokala.

Igandea, hilak 28: Aleria Laranja elurragatik barnealdean 00etatik 11etara ordu lokala. Abisu Horia elurragatik barnealdean 11etatik 21etara ordu lokala. Abisu Horia prezipitazio



iraunkorreatik Kantauri isurialdean 00etatik 15etara ordu lokala. Alerta Laranja prezipitazio iraunkorreatik Kantauri isurialdean 15etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuarengatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 15etara ordu lokala.

Astelehena, hilak 29: Alerta Laranja prezipitazio iraunkorreatik Kantauri isurialdean 00etatik 15etara ordu lokala. Abisu Horia prezipitazio handiarengatik Kantauri isurialdean 00etatik 06etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko temperatura: hileko batez besteko temperatura.

- *Temperatura maximoa:* eguneko temperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Temperatura maximo absolutua:* hileko temperaturarik altuena.
- *Temperatura minimoa:* eguneko temperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Temperatura minimo absolutua:* hileko temperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, temperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen duen egun kopurua.

Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* temperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. temperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. temperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. temperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* temperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologia gidan aurki daiteke: <http://meteodat.euskadi.net/castellano/terminologia.asp>.

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeko daude.